ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko azaroaren 13a, asteazkena • 131 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEEN SAILA

José Ramón Gutiérrez Hermida Luis Aranburu Musika Eskolako zuzendari izendatzea

2016ko ekainaren 3an onetsi zuen Gasteizko Udaleko Gobernu Batzarrak Luis Aranburu Musika Eskolan indarrean dagoen lanpostu-zerrenda edo lanpostuen katalogoaren aldaketa partziala, eta bertan jasotzen zen eskolako zuzendaritza kontseiluak adostutako proposamena, zuzendari-lanpostuaren definizioa aldatu eta irakasleen lanaldia areagotzekoa.

Zuzendaritza-langile gisa definituta geratu zen zuzendariaren lanpostua, eta, hortaz, Tokiko Gobernu Batzarrak izendatu beharrekoa da.

Izan ere, 2010eko ekainaren 25ean behin betiko onespena eman zion udalbatzak Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoari, non arautzen baitira, besteak beste, gobernuaren eta administrazioaren oinarrizko mailak, eta horien funtzionamendua, antolaketa eta erregimen juridikoa xedatzen.

Araudi horretan berariaz arautu ziren zuzendaritza-organoak —motak, zereginak eta izendapen-erregimena—, eta, azken horri dagokionez, honela dago jasota 44. artikuluan:

"1. Tokiko Gobernu Batzarrak izendatu nahiz kargutik kenduko ditu koordinatzaile nagusiak eta zuzendari nagusiak nahiz antzeko organoak."

Eta 2. paragrafoan honela jarraitzen du:

"Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 130.3. artikuluan xedatutakoaren arabera izendatu beharko dira".

Aipatutako 130.3 artikuluak, berriz, hau xedatzen du: "Koordinatzaile nagusia eta zuzendari nagusia, gaitasun profesionala eta esperientzia aintzat hartuta, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako karrerako funtzionarioen artean izendatuko dira, edo A1 azpitaldean sailkatutako multzo edo eskaletako gaikuntza nazionaleko funtzionarioen artean, salbuespen gisa; eta udal-erregelamendu organikoak ahalbidetzen badu, titularrak ez du zertan funtzionarioa izan beharko, zuzendaritza-organo horietako eginkizunen ezaugarri bereziak direla-eta". Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoak jasoa du aukera hori, eta, horrenbestez, beharrezkoa denean, zuzendaritza-organoetako lanpostuak funtzionario ez direnek edo lanpostu horiek betetzeko eskatzen den titulazioa ez dutenek bete ahal dituzte.

Aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, José Ramón Gutierrez Hermida Luis Aranburu Musika Eskolako zuzendari izendatzea proposatzen da, aurreko zuzendariak kargua utzi zuenez, Hezkuntza eta Kultura Saileko zuzendari nagusiaren kargua hartzeko.

Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 44. artikuluak Tokiko Gobernu Batzarrari aitortzen dio zuzendari nagusiak izendatu eta lanpostutik kentzeko eskumena.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124.4.b) artikuluan —Tokiko Gobernua Eraberritzeko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— xedatutakoarekin bat etorriz, alkateari dagokio udal administrazioaren zuzendaritza, eta ondorioz, Gasteizko Udaleko alkateak proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Erabaki-proposamena

José Ramón Gutiérrez Hermida Gasteizko Luis Aranburu Musika Eskolako zuzendari izendatzea, 2019ko urriaren 18ko ondorioekin —egun hori izango baita zeregin horietan emango duen aurrenekoa—, harik eta kargu-uztea erabakitzen edo legearen aginduz gertatzen den arte.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 31n

Alkatea
GORKA URTARAN AGIRRE

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.11.13 06:46:04 Z